



Humanitatearen une gorenak

Aritz Galarraga

Edizioa: Gorka Bereziartua

Bilduma: Saiakera

Generoa: Saiakera

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 188

Koadernaketa: paperezko azala

Argitalpen data: 2022/10/28

ISBN: 978-84-9868-770-5

SALNEURRIA (BEZ gabe): 17,69 €

SALNEURRIA (BEZ bame): 18,40 €

HAUSNARKETA, ERBESTEA, EGUNEROKO
BIZITZA, IRAKURKETAK, EUSKALDUNAK,
EUROPA, LIBURUAK, SAIAKERA LITERARIOA



9 788498 687705 >

Aritz Galarraga HUMANITATEAREN UNE GORENAK



ALBERDANIA



Sinopsia

«Hemen ere, artearen eta bizitzaren eremu guztietan bezala, une gorenak, ahaztezinak, oso arraroak dira», idatzi zuen Stefan Zweig austriarrak. Horretaz kontziente, Aritz Galarragak liburu honetan bildu ditu humanitatearen une goren batzuk, alegia, eguneroko bizitza arruntaren gauza txikiak, gorabehera ezdeusak, lehen kolpean atentzio berezirik ematen ez dutenak, aktualitatearen diktaduratik urrundu eta inguruko errealitateari begiratzen diotenak.

Ezinbestean agertzen dira hala irakurketak, lagunarteak, kotidianitateak eskaintzen dituen sorpresa atseginak –eta, batzuetan, ez hain atseginak–. Paseoaz, siestaz, ardoaz ari zaizkigu testu batzuk, hilerrietako bisita, edertasun, inskripzioez beste batzuk, Mitteleuropaz, Mediterraneoaz, noski Frantziatz, eta ia-ia pertsonaia balira bezala azaltzen dira Annie Ernaux, Chantal Akerman, Antoine Compagnon edota MZ; eta, besteren ginetik, haiek sortutako obrak.

Jatorrian prentsarako zutabe, biziberrituta agertzen dira Humanitatearen une gorenak liburua osatzen duten testuak, edizio lan zorrotz bati esker; modu horretan, pieza solte zirenak, haien arteko elkarriketan ari zaizkigu hemen, barne korrante sendoez zeharkatuak, osotasunean. Eta azken emaitza, hartara, saiakera literario askotariko bat da, Michel de Montaignek ireki zuen bidetik, idazlearen kezka itxuraz hutsalak, eta era berean erabat unibertsalak, modu pertsonalean ekartzen dituenak.

Egileaz



ARITZ GALARRAGA (Hondarribia, 1980) Arte eta Literatura ikasketak egin ditu Bilbo eta Bartzelonan. Unibertsite irakasle gisa aritu da UABn, UBn eta EHU. Ipuin katalan garaikideak biltzen dituen *Hobe kontatzen ez badidazu* (2014) liburuko aukeraketa eta hitzaurrea egiteaz gain, Joxemari Iturralde (*Kaleidoskopia*, 2012) eta Joxemiel Bidador (*Klasiko bitxi, arront klasiko*, 2016) idazleen prentsarako artikuluen edizio bana prestatu du. Salvador Espriu eta Joan Vinyoli idazle katalanen poemak itzuli ditu euskarara, eta Gabriel Ferraterren antologia bat publikatu du Munduko Poesia Kaierak bilduman. Euskal hedabideetako ohiko kolaboratzailea da, Argia, Berria, Deia, Erlea, Euskadi Irratia, The Balde eta abarretan. *Estralanak* lanean (2017) bildu dizkiote prentsarako idatzi dituen testu esanguratsuenetako batzuk. *Posteritatea* izenekoan (2020), aldiz, hamar urtez idatzitako nobedade ez diren liburuen iruzkinak. Argitaratu duen azken liburua *Gogoan dut* (2021) oroitzapen bilduma da.